



***** Euskal Herriko eta Suitzako komunikabidei *****

Prentsa oharra - Suitzako Euskal Etxearen banatzea

Zurichen, 2019-ko abenduaren 15-a

Pasa den urriaren 30-ean, "Suitzako Euskal Etxea - Baskischer Kulturverein" elkarteko bazkideek elkartea banatzea erabaki zuten aparteko batzar orokorrean. Azken urte eta erdian elkartearen etorkizunari buruzko eztabaida ugarien ondoren, batzarrean parte hartu zuten bazkide guztien adostasunez onartu zen erabakia. Arrazoi nagusiak elkartearen zuzendaritza berrizteko hautagaien eta ekitaldi programa iraunkor bat sortzeko sostengu falta izan dira. Ondorioz, Suitzako Euskal Etxea ofizialki banatu da eta jarduera guztiak - web orria eta email zuzenbidea barne - 2019-ko abenduan amaituko dira.

"Suitzako Euskal Etxea" elkartea orain dela 20 urte sortu zen, 1999-ko irailean, eta gaur egunean 50 bazkide zituen eta 100 lagun inguru, Suitzan bizi diren euskaldunak eta baita herrialde ezberdinetako Euskal Herriaren lagunak ere. Elkartearen estatutoen arabera, Suitzako Euskal Etxearen helburua Suitzako euskaldunei topagune eta harreman plataforma bat eskentzea izan da alde batetik, eta bestetik, ekitaldi publikoen bitartez euskal kulturaren zabaltzea eta Euskal Herria ezagutzera ematea. Bestalde, finantzabide arrazoiengatik eta Suitza guztiari eskua eskentzeko, lokal propiorik ez izatea erabaki zen hasieratik.

Lehen hamarkadan oso ondo ibili zen Euskal Etxea eta ekintza ugari antolatu ziren, euskara ikastaroak, euskal musika kontzertuak, Suitzako herri jaietan euskal musika eta dantza taldeekin parte hartzea, edo euskal kirolen antolakuntza besteak beste. Noski, txangoak, poteoak, bazkari-afariak, Olentzero, txosnak eta Suitzako beste talde kulturekin kontaktuak ere ugari izan ziren, eta zer esanik ez Euskal Herritik heldutakoei edo etorri nahi zutenei informazio zerbitzua. Suitza bertako ikastetxeekin edo euskaraz abestu nahi zuten koruekin ere izan zen harremanik. Hala eta guztiz ere, nahiz eta azken hamarkadan euskaldun ugari Suitzara etorri arren, Euskal Etxeak ez du lortu ekintza programa iraunkor bati jarraipena ematerik, ezta egoera hobetzeko itxurarik ere.

Elkartearen banatzearekin Euskal Etxea euskaldunentzako plataforma bezala desagertuko da, baina Euskal Etxearen inguruan sortu den komunitateak bizirik jarraitzen du. Suitzako euskaldunek eta Euskal Herriaren lagunek proiektu berri bati ekiteko garra eta konpromisoa agertu dute, eta ziur gaude etorkizunean Euskal Herriaren inguruan antolatutako elkarte bat ikusiko dugula Suitzan.

Agur ta laster arte!

Suitzako Euskal Etxeko Zuzendaritza



***** An die schweizer und baskischen Medien *****

Pressemitteilung zur Auflösung des Baskischen Kulturvereins – Suitzako Euskal Etxea

Zürich, 15. Dezember 2019

Am 30. November beschloss der in der Schweiz als "Suitzako Euskal Etxea - Baskischer Kulturverein" eingetragene, baskische Verein an einer ausserordentlichen Mitgliederversammlung seine Auflösung. Der Beschluss wurde nach einer eineinhalbjährigen Debatte über die Möglichkeiten, ihn aktiv zu halten, einstimmig gefasst. Da es nicht gelungen ist, einen neuen Vorstand zusammenzustellen bzw. ausreichende Unterstützung zu erhalten, um den Verein zu reaktivieren und ein Minimum an Aktivitäten dauerhaft zu organisieren, hat Euskal Etxea in der Schweiz offiziell aufgehört zu existieren und wird alle seine Dienstleistungen, einschliesslich Website und E-Mail, im Dezember 2019 einstellen.

Der Verein "Suitzako Euskal Etxea" wurde vor 20 Jahren, im September 1999, gegründet und hat zurzeit rund 50 eingetragene Mitglieder und rund hundert Menschen in seinem Umfeld, sowohl Basken/-innen, die in verschiedenen Gegenden der Schweiz leben, sowie Freunde/-innen des Baskenlandes (Euskal Herria) aus verschiedensten Herkunftsländern. Die Ziele der Euskal Etxea der Schweiz waren gemäss den Vereinsstatuten von Anfang an zweigeteilt: Zusammenkünfte und Austausch zwischen Basken/-innen und Freunden/-innen von Euskal Herria, sowie die Verbreitung der baskischen Kultur und Realität durch soziokulturelle und öffentliche Aktivitäten. Aus finanziellen und geographischen Gründen hat Euskal Etxea jedoch nie ein Vereinslokal gehabt.

Dieses Konzept hat in den ersten zehn Jahren gut funktioniert, von Euskara-Kursen (baskische Sprachkurse) über die Organisation von Konzerten bis hin zur Teilnahme an Volksfesten in der Schweiz mit Musik- und Tanzgruppen oder sogar Sportgruppen aus Euskal Herria. Gemeinsame Ausflüge und Essen, Kulturstände, Kontakte zu anderen Kulturgruppen in der Schweiz, waren einige der vielseitigen Aktivitäten, die mit weiteren wie Beratungen und Hilfe bei Anfragen, Kontakte zu Schweizer Schulen oder Chören ergänzt wurden. Trotz der Tatsache, dass es in den letzten zehn Jahren eine Zunahme der Anzahl Basken/-innen in der Schweiz gegeben hat, konnte Euskal Etxea nicht die erwartete Kontinuität erreichen, im Gegenteil, die Aktivitäten sind auf ein Minimum gesunken, ohne Anzeichen einer Verbesserung.

Mit der Schliessung des Vereins schliessen wir eine Phase dessen ab, was Euskal Etxea als baskische Struktur in der Schweiz bedeutete. Aber die Idee, was Euskal Etxea bedeutet, endet nicht hier. Wir sind optimistisch, dass es in Zukunft auf die eine oder andere Weise wieder eine organisierte Struktur zwischen den mit dem Baskenland sich verbunden fühlenden Menschen in der Schweiz geben wird.

Agur ta laster arte! (Auf Wiedersehen und bis bald!)

Vorstand von Suitzako Euskal Etxea



***** A los medios de comunicación vascos y suizos *****

Comunicado de prensa de disolución de Suitzako Euskal Etxea

Zurich, 15 de diciembre de 2019

Con fecha del 30 noviembre, la asociación vasca registrada en Suiza como "Suitzako Euskal Etxea - Baskischer Kulturverein" ha decidido su disolución en una asamblea extraordinaria. La decisión se tomó por unanimidad, después de haber llevado un debate desde hace año y medio sobre las posibilidades de mantenerla activa. Ya que no hubo éxito en conseguir una nueva junta directiva ni apoyos suficientes para reactivar la asociación y volver a organizar durablemente un mínimo de actividades, Euskal Etxea en Suiza ha dejado de existir oficialmente y finalizará todos sus servicios, incluida la página Web y el correo electrónico, en diciembre de 2019.

La asociación "Suitzako Euskal Etxea" se fundó hace 20 años, en septiembre de 1999, y contaba en la actualidad con unos 50 socios/as inscritos/as y alrededor de un centenar de personas en su entorno, tanto vascas y vascos residentes en varias regiones de Suiza, como amigas y amigos de Euskal Herria de muchos orígenes diferentes. Los objetivos de Euskal Etxea de Suiza, recogidos en sus estatutos fundacionales, fueron desde el inicio dobles: el encuentro e intercambio entre provenientes y amigos/as de Euskal Herria, así como la difusión de la cultura y la realidad vascas a través de actividades socioculturales y públicas. Sin embargo, y por motivos de financiación y de abarcar toda Suiza, Euskal Etxea nunca dispuso de un local de encuentro.

Este concepto funcionó bien la primera década, con actividades desde cursos de Euskara hasta la organización de conciertos o la participación en fiestas populares en Suiza con grupos de música y de danzas o incluso deportivos traídos desde Euskal Herria. Excursiones, poteos, comidas y cenas, txosnas, contactos con otros grupos culturales en Suiza, fueron algunas más de las muchas actividades, que se completaban con otras menores como consultorías, ayudas y respuestas a personas y colectivos, llegando hasta escuelas o coros suizos con preguntas culturales. Sin embargo, y a pesar de contar en esta última década con una emigración euskaldun en aumento instalada en Suiza, Euskal Etxea no ha conseguido la continuidad esperada, sino todo lo contrario, las actividades han ido disminuyendo hasta un mínimo sin visos de mejora.

Con el cierre de la asociación, cerramos una etapa de lo que significó Euskal Etxea como estructura vasca en Suiza, pero no se termina aquí la idea de lo que significa Euskal Etxea. Ahí sigue el compromiso y el entusiasmo de todas y todos para un nuevo proyecto y somos optimistas, de que en el futuro, de una manera u otra, volverá a haber una conexión organizada entre las personas vinculadas a Euskal Herria en Suiza.

Agur ta laster arte!

Junta directiva de Suitzako Euskal Etxea